

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GOIURI-ONDONAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Baso aprobetxamendurako enkante publikoa

Goiuri-Ondonako Administrazio Batzarrak, kontzejuaren 2021eko urriaren 15eko bilkuran, eta Uzkiego Administrazio Batzarrak, kontzejuaren 2021eko urriaren 13ko bilkuran, hartutako erabaki bidez, Arabako Foru Aldundiaren behar bezalako baimenarekin, baso aprobetxamendu honen enkante publikoa iragartzen da:

Pinu Insignis lotea: "Sarasola eta Otalarrin" (onura publikoko 93 mendia) dermioa, Altubeko Erkidegoaren titulartasuneko.

Onura publikoko 93 mendia, Goiuri-Ondonako Administrazio Batzarraren eta Uzkiego Administrazio Batzarraren jabetzakoa. Baso soilketa bidezko aprobetxamendua intsinis pinu multzoan; 1.158 zuhaitzez osatua. Bolumen osoa: 2.179,545 m³ ¼ zur eta 105,273 estereo enborki.

1. Erakunde esleitzaila, kontratuaren xedea eta lizitazio oinarria:

– Goiuri-Ondonako Administrazio Batzarra.

– Onura publikoko 93 zenbakiko mendian (Sarasola eta Otalarrin dermioak). Zuhaitzak: 1.158. Bolumen osoa: 2.179,545 m³ ¼ zur eta 105,273 estereo enborki.

2. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.

– Izapidetzea: arrunta.

– Prozedura: irekia (ekonomia eskaintzarik onena), preziorik onena izanik esleipen irizpide bakarra.

– Esleitzeko era: enkante publikoa.

3. Lizitazio oinarria.

Baso soilketa bidezko aprobetxamendua intsinis pinu multzoan. Lote horren lizitazioaren oinarritzko prezioa 108.977,21 euro da, BEZa aparte.

4. Behin-behineko eta behin betiko bermeak.

– Behin-behinekoa: balorazioaren ehuneko 3.

– Behin betikoa: Lotearen esleipen prezioaren ehuneko 5.

– Fidantza, bideak erabiltzeagatik: ehuneko 3, erauzketa bidean sor daitezkeen kalteei erantzuteko.

5. Ordaintzeko baldintzak:

Administrazio klausula berezien agirian adierazitakoak.

6. Aprobetxamenduaren epea.

Emate akta sinatu ondorengo 12 hilabeteetan.

7. Iragarki gastuak.

Esleipendunak ordainduko ditu.

8. Agiriak eta lizitazio baldintzen informazioa eskuratzea.

Hemen daude ikusgai administrazio klausulen agiriak eta aprobetxamendua arautzen duten baldintza agiriak:

Goiuri-Ondonako Administrazio Batzarra; helbidea: Ondona Bidea 4; posta-kodea: 01449; telefonoa: 606648246; posta elektronikoa: jgoiuri@gmail.com, astelehenetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara bitartean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

9. Eskaintzak aurkeztea.

Eskaintzak aurkezteko lekua eta eguna: Eskaintzak Goiuri-Ondonako Administrazio Batzarrean aurkeztuko dira (Ondona Bidea 4, posta-kodea: 01449; telefonoa: 606648246), astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara bitartean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratu ondorengo hogeitun egunetan. Epearen azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Eskaintza eredia eta aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio klausula berezien agirian eta baldintza agirian jasotzen den eskaintza ereduaren arabera aurkeztu beharko dituzte eskaintzak.

10. Gutun azalak irekitzea.

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo hirugarren egun baliodunean irekiko dira, 14:00etan, Goiuri-Ondonako Administrazio Batzarrean (Ondona Bidea 4, posta-kodea: 01449, Araba).

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Goiuri-Ondona, 2021eko abenduaren 13a

Lehendakaria

PABLO BASTERRA GOIKURIA